

Jose Ignacio Iruretagoyena Larrañaga jauna, Zarauzko Udaleko zinegotzia, ETAREN atentatu baten biktima zuzena, oroitzeko, aitortzeko eta esker ona adierazteko omenaldia

2018ko Urtarrilaren 9an hogeitun urte betetzen dira, Jose Ignacio Iruretagoyena jaunari, ETAK atentatu batean, bizia moztu ziola.

Jose Ignacio Iruretagoyenak 35 urte zituen hil zutenean. Ezkondua eta bi seme-ren aita zen. Jose Ignacio, 1995ko Maiatzean, herritarrek, Partido Popular alderditik zinegotzi aukeratu zuten.

Atentatuaren egunean, 1998ko Urtarrileko 9an ospatu zen ezohizko Udalbatzan adierazi zen bezala, "Pertsona leiala, bere gaztetasun eta alaitasunarekin, Udaleko zinegotzien artean begikotasuna zuena. Jose Ignacio Iruretagoyena ona eta langilea zen".

Zarauzko Udalak, memoria egin nahi du, omenaldia egin nahi dio eta errekonozimendu instituzionala eskaini nahi dio Zarauzko Udaleko zinegotzi izan zen Jose Ignaciari.

Jose Ignacio Iruretagoyena Larrañaga ez zuten inoiz hil behar. Inoiz ez zuen gertatu behar atentatu horrek, ez besterik. Ez dago justifikaziorik. Guztiz bidegabea izan zen. Ez dago ezer, giza eskubideen, pertsonaren eta bizitzaren balioaren gainetik; ez kausa politikorik, ez bestelakorik.

Eragindako kaltea gizarte osora zabaltzen da, baina, Jose Ignacioren familiari eta lagunei eragindako oinaze neurrigabeak, nahigabe jasanezina sortu zien.

Pertsona bat hiltzea edo zauritzea, edota mehatxatzea, estorsionatzea zein jazartzea ere, beti da ankerkeria bat. Inor ez da nor, inoren bizitzeko eskubidearen, ez eta duintasunaren aurka egiteko.

Ekitaldi honetan, atentatu baten biktima zuzena izan zen Zarauzko Udaleko zinegotzia gogoratu nahi dugu: Jose Ignacio Iruretagoyena. ETAK pertsona on bat erasotu zuen, Giza Eskubide oinarrikoena urratuz: bizitzeko eskubidea. Jose Ignaciok bere idealak eta uste sendoak defenditu zituen, herriaren alde, guztion onerako eta guztion interesen alde lan egiten.

Gure aitortpena eta omenaldia merezi du.

Adierazpen honen bitartez, gure adiskidetasun eta elkartasun guztia adierazi eta helarazi nahi diogu familiari. Modu autokritikoan begiratu nahi dugula atzera adierazi nahi dugu. Erakundeok eta indar politikook hausnarketa kritikoa partekatu behar dugu egin ez denari buruz, edo modu isilean egin denari buruz, edo berandu egin denari buruz; edo banatu gaituenari buruz bene-benetan batzen gaituenaren aurrean. Gaur, hemen, indarkeria arbuatzeak eta biktimei elkartasuna adierazteak batzen gaitu. Eta noizbait, Zarauzko Udala edo bertan ordezkaritza dugun alderdiok edo gizabanakoren bat ez bagara behar zenean zuen ondoan egon, edo horrela sentitu ba duzue, barkamena eskatu nahi dizuegu.

Herritarren eta ordezkarien aurrean, adierazi nahi diegu gure esker on zintzo eta sakonena Jose Ignacio Iruretagoyena Larrañagaren familiari eta lagunei.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, Zarauzko herritarren izenean, Jose Ignacio Iruretagoyenari, Udalari eta gizarte honen eraikuntza demokratikoari egindako ekarpenengatik.

PLAKA



JOSE IGNACIO IRURETAGOYENA LARRAÑAGA

Zarauzko Udaleko zinegotziaren

OROIMENEZ

ETAk hil zuen, 1998ko urtarrilaren 9an

***Ez zuen gertatu behar
Inoiz ez...***

Zarautzen, 2018ko urtarrilaren 9an